

DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, SAUn MEKANIKARI-ELEKTRIKARI BALIOANIZTUNAREN LAN POLTSA SORTZEKO HAUTATZE PROZESUAREN DEIALDIA.

- **1.1 FASEAREN - PROBA PROFESIONAL TEORIKOA ETA 2.FASEAREN - PROBA PSIKOTEKNIKOAK ETA GAITASUNEKOEN EMAITZA.**
- **1.2 FASEA - PROBA PROFESIONAL PRAKTIKOA EGITEKO DEIALDIA.**

Lehenengo.- Mekanikari-Elektrikari Balioaniztuna Lan Poltsa osatzeko hautaketa prozesuaren **1.1. Faseari – Proba Profesional Teorikoa eta 2. Faseari – Proba Psikoteknikoak eta Gaitasunekoak dagozkien emaitzak** argitaratzen dira (1. ERANSKINA).

Bigarren.- Interesatuak egokitzat hartzen dituzten alegazioak egin ahal izango dituzte 3 lanegunez, zerrenda argitaratu den eguna barne (2023ko abenduaren 19, 20 eta 21ean) horretarako prestatutako inprimakia bete eta aurkeztuta Donostiako Tranbia Konpainiako bulegoetan, Fernando Sasiain kalea 7, 9:00etatik 13:00ak arte.

Hautaketa Batzordeak ebatziko ditu alegazioak, eta behin ebatzita, behin betiko emaitzak argitaratuko ditu www.dbus.eus web orrian eta Donostiako Tranbia Konpainiako bulegoetan, 2024ko urtarrilaren 8tik aurrera.

Hirugarren.- **GAI izan diren hautagaiei dei egiten zaie 1.2 Fasea – Proba Profesional Praktikoa egitera joan daitezzen 2024ko urtarrilaren 23an, DBUSEko instalazioetan (Fernando Sasiain kalea 7, Donostia). Esleitutako txanda ikusi 2. ERANSKINEAN.**

Oinarrieta aurreikusitakoaren arabera, tailerreko proba praktikoa bat edo gehiago egin beharko dira, gaitasun profesionalak eta arazo tekniko bati aurre egiteko trebetasunak ebaluatzeko. Proba egiten den bitartean, hautagaiak gauza izan beharko du arazoa diagnostikatzeko eta matxuraren norainokoa identifikatzeko eta une oro arrazoitu beharko ditu arazoa konpontzeko prozesua eta praktikan konpontzeko prozesua.

Proba gainditzeko gutxienez 21 puntu lortu behar dira, 30 puntutik.

Hautagaiei dei bakarria egiten zaie eta jatorrizko NAN, pasaportearen edo gidabaimena erakutsi beharko dute. Dokumentu horietako bat ez badute aurkezten, ezin izango dituzte probak egin.

Gogorazten da Hautaketa Batzordeak egiaztatu ahal izango duela hautagaiek Hautaketa Prozesuan zehar aurkeztutako dokumentazioa eta emandako informazioa egiazkoa dela, eta automatikoki deialditik kanpo utzi ahal izango dituela informazio faltsua aurkeztu duten hautagaiak.

Hautaketa Prozesuaren garapenarekin loturik sortzen den informazio guztia jakinarazteko, ondoko bide ofizial hauetan argitaratuko da:

- Web orria: <https://www.dbus.eus/beste-zerbitzu-batzuk/pertsonalaren-aukeraketa/>
- Donostiako Tranbia Konpainiako iragarki taula (Fernando Sasiain 7, Donostia)

Stua.: Hautaketa Batzordea
Donostia, 2023ko abenduak 19

1.ERANSKINA:**1.1 Fasearen - Proba Profesional Teorikoa eta 2. Fasearen - Proba Psikoteknikoak eta Gaitasunekoak emaitza.**

1.1 FASEAREN EMAITZA - PROBA PROFESIONAL TEORIKOA:

IDENTIFIKAZIO KODEA	1.1 FASEAREN PUNTUAZIOA (gutxienez 12/20 puntu)
ME23-002	12,23
ME23-004	13,80

2.FASEAREN EMAITZA - PROBA PSIKOTEKNIKOAK ETA GAITASUNEKOAK

IDENTIFIKAZIO KODEA	2.FASEAREN EMAITZA (gutxienez 9/15 puntu)
ME23-002	10,13
ME23-004	12,38

2.ERANSKINA:**1.2 Fasea - Proba Profesional Praktikoa egiteko deia, DBUSeko instalazioetan (Fernando Sasiain kalea 7, Donostia).**

IDENTIFIKAZIO KODEA	EGUNA	ORDUA
ME23-002	2024/01/23	15:00
ME23-004	2024/01/23	15:00